

Literatur ekarpena RIEV-en, azken ehun urteotan

(Issues of Literature in the RIEV over the last 100 years)

Velez de Mendizabal, Josemari

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-150-6 (2007); 123-141]

Julio de Urkijok RIEV sortu zuenetik literaturak bere toki garrantzitsua izan du aldizkarian. Ikerketaren arlotik zein sortzeko ekarpen gisa, euskal literaturak bere leihoa izan du mundura azaltzeko. Eta ehun urteko ibilbidean goi mailako adituak agertu dira argitalpenaren orrialdeetara, aldizkaria bera aberastu delarik haien lankidetzarekin. Aldizkariaren Zuzendari desberdinen agintepean tratamendu desberdina izan badu ere, aldi guztietan isladapen egokia eman zaio euskal literaturaren errealitateari. Dena den, euskara hizkuntza txikia denez gero, eguneko teknologiek eskainitako aukeraz baliatu beharko da RIEV, aldizkariaren euskal ekoizpena unibertsalagoa bihurtzeko.

Giltza-Hitzak: Euskal literatura. Euskara.

Desde que Julio de Urkijo creó RIEV, la literatura ha ocupado un lugar importante en la revista. Tanto para aportaciones en el campo de la investigación como en el de la creación, la literatura vasca ha podido valerse de esta ventana para asomarse al mundo. Y en una vida de cien años ha disfrutado de la aparición de especialistas de alto nivel en sus páginas que, con su participación, han enriquecido a su vez la revista. A pesar de que cada Director ha enfocado la revista de forma diferente en su mandato, durante toda su trayectoria ha reflejado fielmente la realidad de la literatura vasca. De todas maneras, como el euskera es una lengua pequeña, RIEV se ha tenido que valer de las posibilidades que ofrecen las nuevas tecnologías para que el producto vasco de la revista sea más global.

Palabras Clave: Literatura vasca. Euskera

Depuis que Julio de Urkijo créa RIEV, la littérature a occupé une place importante dans la revue. Par sa contribution au domaine de la recherche ainsi qu'à celui de la création, la littérature a disposé ainsi d'une fenêtre pour se pencher sur le monde. Et durant un siècle de vie, elle a compté dans ses pages sur la présence de spécialistes prestigieux, qui sont venus, grâce à leur participation, enrichir la revue. Quoique chaque Directeur ait octroyé à la revue une orientation différente, durant toute sa trajectoire elle a été le reflet de la littérature basque. Mais comme l'euskara est une petite langue, RIEV a dû recourir aux possibilités offertes par les nouvelles technologies, afin de pouvoir offrir un produit plus global.

Mots Clés: Littérature basque. Euskara.

RIEV eta literatura uztartzea egokitu zait jardunaldi hauetan, bere lehen mendeurrena ospatzen ari den kultura agerkari honetan literatur ekarpena nolakoa izan den ikertzea eskatu zaidalarik. Literatur kritikoa ez naizelako, alde batetik, eta eskaini didaten denbora laburra kontuan izanda, bestetik, ez naiz ur handitan sartuko, eta begirada orokor bat emango dut soilik. *RIEV*-eko zenbaki guztiak arakatzea ez da lantegi erraza izan. Ondoko lerroetan aipatuko dudana baino gehiago da, noski, bilduma osoan, literaturaren kontzeptua zabalaita, eta nire hitzek ematen duten baino zerbait sakonagoaren bila ari direnek ondoko irtenbide hau dute zuzenena: *RIEV*-era bertara jo, eta bertan bilatu. Benetan: ariketak merezi du. Ordu goxoak eman daitezke, *RIEV*-en euren ekarpena eskaini duten adituei irakurtzen ari. Ondorengoak nire iritzia dira eta zuekin konpartitu nahi ditut. Konpartitzeak ez du esan nahi inposatzea.

Literatur eskaintza, zifratan bederen behar bezala mugatzeko, ondoko laukia egin dut. Begi bistan da *RIEV*-en egituran garrantzi handia ematen zaiola literaturari, batez ere lehen etapan eta Urkijoren aginduetara.

Urteak	Lanak	%	Euskaraz	Espainieraz	Frantsesaz	Beste
1907-1909	57	23,7	14	21	19	3
1910-1922 ¹	47	19,6	16	20	11	–
1923-1936	76	31,7	17	52	7	–
1983-1992	31	13,0	17	11	1	2
1993-2006	29	12,0	6	17	–	6
Denera	240	% 100	(%29) 70	(%50) 121	(%16) 38	(%5) 11

Aldizkarian artikulutzat har genitzakeenen kopurua 2.245 izanik, literatur arloari eskainitakoa, gutxi gora behera, % 11 da.

RIEV-en osotasuna hiru alditan zatitu dut, zuzendari bakoitzari dagokiona kontuan hartuz. 1907-1936, Julio Urkijo. 1983-1997, Julio Caro Baroja eta Juan Garmendia Larrañaga; 1997-2005 Gregorio Monreal. Azken urteko edukia –2006koa, Aingeru Zabalorekin– oso eragin txikia du ikerketa osoan.

1. LEHEN ALDIA

Lehen aldian, 1936ean bere ekintza osoa gelditu arte *RIEV*-ek esfortzu berezia eskaini zion literatura argitaratzeari eta literaturaz idazteari. Dena den, zenbakiek ez gaituzte okerrarazi behar, izan ere euskarazko produkzioari dagokionez, hein handi batean, berrargitalpenak ziren, besteak beste Axularen *Gero*, bi bertsiotan, gainera, bata faszimilean –Bordelen 1643an argitara-

1. 1922 da *RIEV* Eusko Ikaskuntzara pasatzen den urtea.

tutakoaz– 1910ean hasten delarik, eta bigarrena bizkaitar euskalkiz Pedro Antonio Añibarrok prestatuta. Sekulako esfortzua suposatu zuen urdazubitarraren lana birkaleratzea. Urkijok berak azaltzen digu zergatikakoa “Axular y su libro”, titulupean 1911an RIEV-en bertan publikatutakoan:

Desde que salió a luz el primer número de la Revista Internacional, cuya fundación responde, entre otros fines, al deseo de honrar la memoria de los que en días más o menos remotos dedicaron su talento y sus ocios al cultivo de la lengua eúskara, proponíame hacer algo que contribuyera a grabar, en la memoria de los vascos, el simpático recuerdo del esclarecido escritor que en vida se llamó Pedro de Axular. Por eso, después de no pocas dudas y vacilaciones, y aun a riesgo de que el entusiasmo de mis paisanos no corresponda a la cuantía del sacrificio, me dedico hoy a editar el Guero, con lo cual creo además contribuir de una manera real y positiva al florecimiento de los estudios euscarológicos.

Edota Tartasen *Onsa hilceco bidia*-ren transkripzioa. Jaurgain (“Jean de Tartas”) eta Darricarrere (“Le moyen de bien mourir”) adituek obra horren gaineko apunteak eman zituzten frantsesez zenbait ekarpenetan obra hobeto ulertzeko. Aipamen berezia du ere, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuak, 1933an faszimilean ere publikatua, Pariseko Bibliothèque Royalean gordetzen zen 1545eko lehen edizioko ale bakarra aprobetxatuz. Argitalpen horri sarrera dokumentatu eder bat gehitu zitzaion, “Introducción a nuestra edición del *Linguae Vasconum Primitiae*”, Julio de Urkijok berak gaztelerez burutua. Berdin gertatu zen Oihenarten 1638ko *Notitia utriusque Vasconiae*-rekin, Javier Gorosterratzu nafar fraide erredentziotarrak latinetik espainierara “Noticia de las dos Vasconias” izenburuaz RIEV-en argitaratua, zenbait ekarpenetan, itzultzaileak berak eginiko sarrera mamitsuarekin.

Ene ikuspuntutik, bere aldizkarirako nahi zuen helburua lan horiekin lortzen du Urkijok modurik egokienean. Euskal literaturaren mugarri diren obra horiei, bera garairako puntakotzat har genitzakeen ikerketak gehitzen dizkie, eta estaldura ikaragarri ona ematen zaie nazioarteko ... zein etxeko eskapatetara ateratzeko.

Aurrekoei, eta berrargitarapenei dagokienez, Peñafloidako Kontearen *El borracho burlado* erdaraz-euskarazko irri opera gehitu behar zaie, lau ekarpenetan 1907-1909 artean, faszimilean argitaratua. Bide beretik, RIEV-ek Sarako Joannes Etxeberri medikua, Garibay, Oihenart, eta XVI, XVII eta XVIII. mendeetako beste euskal idazle batzuen lanak erreproduzitu zituen. Urkijok berak idatzi zuen 1933an: “Uno de los principales fines de la fundación de la RIEV es el de ir dando a conocer a nuestros lectores los trabajos escritos en vascuence con anterioridad a 1815”.

Ez ziren falta izan, sortzeko lan hutsak ere, Txomin Agirrerren *Garoa*-rekin gertatu bezala. Agirre 1907tik joan zen argitaratzen kapituluka RIEV-en. Irakurleak kokatu egin dezake bere burua uneko testuinguruan eta sentsazioa du idazlearen atzetik eta haren lepo gainetik jarraitzen ari dela obraren gorputzeta. Eta testuko Joanes artzainak lagun, Aitzgorriko magaletaraino iristen ari dela dirudi. Eleberri baten jaiotza zen eta idazle ondarrutarrak Urkijoren sehaska aukeratu zuen bere umearentzat.

Publikatu zuen *RIEV*-ek, ekarpen bakar batean, 1911an, Resurrección María de Azkueren *Ortzuri* opera ere, lekeitarrak “bere adiskide maite Urquijo anaiai” – “a sus queridos amigos los hermanos Urquijo” eskainia. Eta bi hizkuntzetan ipini dut eskainta, Azkuek ere obra bietan eman baitzuen, itzulpena bere eskuz ahalbidetuz. Lanak partiturak ere daramatza. Oso ekarpen bete da, zalantzarik gabe.

Gorago adierazi dudanez, euskal antzerkiak toki izan zuen *RIE*ven, beharbada ez hain zabal eta sakon, beharko zukeen baino. Aipatu dut *El borracho burlado* eta derrigorrez egin behar dut Georges Hérelleren gainekoa ere, bera izan baitzen herri antzerkiren gaia lehen eta gehien jorratu zuena, “Les représentations de pastorales basques” lanarekin, eta egile berdinak geroago beste ekarpen batzuk ere eman zituen. Julio Urkijok berak ere, 1909an, “El misterio de la Pasión, representado en Fuenterrabía el año de 1602 (con motivo de la publicación de ‘Helene de Constantinople’)” deritzanean giari buruzko bere ikuspuntua utzi zuen, sarrera “Nunca he comprendido que pudiera aplicarse con propiedad a las pastorales suletinas el calificativo de ‘verdadero teatro vasco’ y mucho menos el de ‘teatro nacional vasco’” eman ziolarik.

Jarraitu zioten beste aditu batzuek, besteak beste, Henri Gavel, Etienne Decrept eta Pierre Lhande. Hain zuzen ere, Etienne Decrepten pastoral bat ere publikatu zuen *RIEV*-ek, *Amatchi*, 1914an. Geroago, bada beste idazle andana bat batez ere Ipar Euskal Herriko antzerkia aztergai duena, horien artean Violet Alford (“Ensayos sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa”, Pedro Garmendiak espainieratua, 1931).

Antzerkiaren sailkapen tradizionalen sar genezake ere, Julio Urkijok Eugenio Garay de Monglave faltsutzaile eta iruzur egileari sekulako astindua eman zionekoa. “Chant d’Altabizkar” ospetsua Garay de Monglave eta Louis Duhalderen artean faltsifikatu zuten 1834an eta Webster euskaltzale britainiarrak desenmaskaratu zituen 1883an². Urkijok Wentworth Websteren laguntzaile eta laguna izan zen³. Beheko oharren egilea –Julio Urkijok bera– eta “Martin de Anguiozar” izenordean ezkutatutako Ramón Berraondo, hots, “Vascos (1833)” lanaren itzultzailearen artean kidetasun handia zegoen. Egia da, Monglave jaunak “Dictionnaire de la Conversation. Paris. Belin Mandare. Libraire” delakoan 1833an idatzitakoa irakurtzea nahikoa dela hura nolakoa zen jakiteko. Eta “Martin de Anguiozar”-ek ederki azaleratzen ditu haren hutsak, 1932ko *RIEV*-en, gogor astinduz.

2. Urkijok idatzi zuen: “Garay de Monglave es autor digno de poco crédito, pues fue él quien escribió (en francés) el *Chant d’Altabizkar*, que traducido al vascuence por un primo de Duvoisin, logró engañar a historiadores y críticos, hasta que se descubrió la superchería. Véase la revista “Euskara” de Berlín, n° del 1° de Junio de 1890 p. 62 (Julio de Urquijo)”. (Vascos [1833] por Eugenio Garay de Monglave. Traducción de Martin de Anguiozar).

3. Wentworth Webster zenbait euskal agerkaritako lanak izan zen, *RIEV* sortu aurretik ere, besteak beste Jose Manterolaren *Euskal Erria* (1880) aldizkarian.

Antzerako gogortasuna erabiltzen du Urkijok urtebete lehenago, Lesako erretore izandako Tomas Zabalaren kontra. “Del teatro litúrgico en el País Vasco. ‘La passion trovada’ de Diego de San Pedro (representada en Lesaca en 1556)” tituluarekin Zabala erretorearen fede txarra frogatu zuen,

Las falsificaciones de la Historia son siempre reprobables, pero, dada la fragilidad de la humana naturaleza, no nos sorprenden demasiado, cuando, por entrar en juego grandes intereses nacionales, el historiador se ciega y se deja influir por un ambiente de exaltación patriótica. Pero que un modesto y desconocido escritor, que ni siquiera se propone publicar su obra, se entretenga, en nuestros días, con toda calma en interpolar un texto antiguo y se deleite luego en glosarlo para su uso particular, a sabiendas de que está interpolado, es algo, aunque posible, tan insólito e inesperado, que con facilidad inducirá en error al investigador de buena fe, hasta que la aparición de nuevos datos permita comprobar la superchería. Por fortuna, ese género de engaños se descubre, casi siempre, a la postre. Tal fue, por ejemplo, el caso del apócrifo *Canto de Altabiscar*, en el que sólo sorprende que se tardara tanto tiempo en descubrir su falsificación, patente, por la falta de arcaísmo en su lenguaje.

Toki zabala ere eskaini zion aldi hartako *RIEV*-ek ahozko literaturari eta alegi eta erretrauen aurkezpenari. Urkijok berak maisutasuna erakutsi zuen arlo horretan, batez ere atsotitzen testuinguru alderakorrean. Garibay, Sauguis, Oihenart, Iburguen-Cachopin eta enparauen bildumak aztertu zituen⁴. Interesgarria gertatu zen “La tercera Celestina y el canto de Lelo”, 1910ean publikatu zuena. Horrezaz gain, argitara eman zituen beste euskaltzale batzuen lanak. Horien artean azpimarratu behar dira, Azkuek Parisko Biblioteka Nazionalen aurkitutako Fray Mateo de Zabala bizkaitarrarena zitekeen eskuizkribu batekoak, “Fábulas en dialecto vizcaíno” tituluarekin irakurtzen direnak. Inolaz ere, ezin ditugu ahaztu Adema Kalonjearen obrak, estilo desberdinetan gauzatuak, besteak beste alegiak, 1908tik transkribituak.

Bertsolaritzari buruzko ekarpenak ere artikulu interesgarriak utzi zituen, Gregorio Mujikak, besteak beste, idatziak. Poesia? Horra hor, zenbait emanalditan, 1907an hildako Adema Kalonjearen obra, transkribitua, poema erlijioso eta profanoek osatua. Edo Jean Barbieren *Gure amacho*, 1908an.

Itzulpenetan, besteak beste, Cervantesen Kixotearen X. atala egin zuen Augustin Anabitarte donostiarra 1928an, “Don Kixoteren atal bat euskeratuta” titulupean. Harremana izan nuen Anabitarte jaunarekin, biok lotzen gintuen beste afizio batean: haize ontziz nabigatzekoa. Ikasgai batzuk eman zizkidan arlo horretan... giro erdal nagusi batean. Ez nuen bera hil arte eza gutu euskaltzale jakintsu zenik. Baina urte hartako zenbaki berdinean, “Traducción al vasco de un capítulo de ‘El Quijote. IX Capítulo’” Angel Irigarayren itzulpena ageri zaigu. “Non etsia ematen zaion, euskaldun lerdanak eta mancha’tar kementsuak, elkarrekin izan zuten arrigarrizko garaikerriari.” Eta urtebete geroago, Xabier Lizardi sartzen zaigu itzulpen lanetan aurreko titulu berdinarekin baina “Bederatzigarren atalkia” jarrita. “Euskaldun zutiñak eta

4. Ez zitzaion falta izan lantegi horretan Carmelo Etxegaray eta Telesforo Aranzadiren laguntza.

mantxar bulardetsuak alkarrekin egindako burruka arrigarria amaitu eta azkentzea” dio Lizardik sarreratxoan⁵. Urte batzuk pasatuko ziren Pedro Berrondok itzultitako *Don Kixote Mantxako* kaleratu arte.

Toki ere eman zion Ebangelioak publikatzeari, bestela ezin zitekeen moduan, eta 1934 eta 1935eko ekarpenetan “Evangelio de San Mateo, traducido al vascuence roncalés de Vidangoz, por D. Prudencio Hualde Mayo” Nafarroako Bidangotzen jaiotako bertako erretore izan zenaren lanari irteera eskainiz.

Itzulpengintza arteak bere borroka partikularrean segitzen zuen, zailtasunez gaindi, argi eta garbi.

Ez dut uste literatura hutsaren sailkapenean sar daitekeenik Julien Vinson eta Julio Urkijoren artean burututako “Les études basques de 1901 à 1906” lan bibliografikoa, baina oso interesgarria gertatzen da bost urte horietako ekoizpenaz jabetzeko. Beste arloan, J.B Daranatzek 1908an argitaratu emandako “Les fonds Dota, Duchesne et Oihenart, à la Bibliothèque Nationale” eta J. Urkijoren beraren “Notas de bibliografía vasca” dira azpimarratzekoak. Behintzat, azken hori, gauza interesgarri askoren artean, niri baliagarri gertatu zitzaidan Melchor Oyanguren Leintz Gatzagako frantsiskotarraren berri izateko, zeinak XVIII. mendean “euskara-gaztelania-tagalo” hiztegi bat burutu zuen. Urkijok, seriotasunean, umoretsu izaten ere bazekiela erakusten digu batzuetan eta une horietako bat da, hain zuzen, 1908ko “Notas de bibliografía” horretan. Dio deustuarrak:

Hay, por otro lado, un párrafo curioso relativo a la antigüedad del vascuence en *Eusqueraren Berri Onac*. En él nos cuenta el autor de este opúsculo, que en su tiempo solían decir los vascos, entre chanzas y veras, que Dios preguntó en vascuence al primer hombre: *Adan, non zera?* Y he dicho que este párrafo es curioso, porque no sólo trae a la memoria lo que acerca del origen del vascuence escribieron Garibay, Poza, Echave, Perochegui y Erro, sino que también recuerda aquella supuesta discusión del Capítulo metropolitano de Pamplona, que dice terminó con la decisión siguiente: “¿Fué el vascuence la única lengua hablada por Adan y Eva en el Paraíso? El Capítulo declara que no existe duda acerca de este punto, contra el que es imposible presentar una objeción seria y racional.

Bibliografian, egia aitortzeko, laguntza paregabera jaso zuen *RIEV*-eko zuzendariak euskaltzale mordo batengandik. Lehen aldi hartakoak dira, besteak beste eta denen izenak ipiniko ez ditudalako barkamena eskatuz, Justo Garate, Angel Irigaray, Fausto Arozena, René Lafon, Philippe Veyrin, Ildefonso Gurrutxaga, Odon Apraiz, Pedro Garmendia, Antonio Odriozola, Aita Donostia, Henri Gavel, Enrike Jorda de Gallastegi, Telesforo Aranzadi eta Francisco Diaz de Arkaia.

5. “Donde se concluye y da fin a la estupenda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron” idatzi zuen Cervantesek.

Literatura arloan erdietsi al du *RIEV*-ek bere lehen mendean nazioartekotasunaren labela? Erantzuna zatitan emango dut. Konbentziturata nago inork gutxi egin duela gehiago euskal literaturaren alde nazioarteko zirkuituetan *RIEV*-ek baino, bere beteranotasuna beste ezergatik ez bada ere. Eta ez dugu ahaztu behar Urkijo bere garaiko pertsona interesgarrietakoa izan zela europar zientzia arloetan, ezaguna zelarik elkarte askotan. Horregatik erdietsi zuen goi-goi mailako lankidetzeta *RIEV*-en orrietarako. Seriotasuna ekarri zion euskal kulturaren gaineko ikerkuntzari eta errespetu irabazarazi zion. Kultura arrotza eta zaila izanik, era guztietako fantasia bitxietarako zegoen ongarriritua gurea nazioarteko esparruan, guk egun –telebista kate desberdinetatik zerbitzatzen dizkiguten australiar edo amazoniar leinu erdi galdu baten gaineko informazioa digeritzean– egiten dugun antzera.

Baina eragina izan zuen, ala ez, nazioarteko testuingurua? Baietz erabatekoarekin erantzun behar zaiolakoan nago, Urkijo zuzendaria izan zen bitartean eta geroko aldietan ere, ikusiko dugun moduan. Noren garaian intziditu zen gehien? Auskalo! Dakigun bezala, Julio Urkijo gizon bakana izan zen. Goi mailako kultura pertsona genuen, maitemindua euskal kulturarekin, eta hizkuntzek erakartzen zuten, euskarak era bereziaz. Sendi aberats batean jaioa, Urkijok mezenasgoa erabili zuen euskal kulturari garaiko zirkunstantzietan ahalbidetzen ez zioten babesa emateko. Kako artean galde genezake: “Noiz izan du euskal kulturak sasoi onik? Urkijok bultzada ederra eman zion euskal literaturari (kulturari), orduko garaiak eta egunekoak ez direla batere konparagarriak gogoan izanda. Baina Urkijok Europako zirkulu intelektualetara helarazi zuen bere aldizkaria eta euskal ikasketen maila goratu egin zen.

Urkijok –*RIEV*-ek– berreskuratu egin zuen euskal literaturarako galtzear edota ahaztuta zeuden testuak. Nazioarteko zirkuluetarako interesgarriak ez ezik, batez ere euskaldunontzat zeharo baliagarriak gertatuko ziren argitalpenak burutu zituen. Ez dakigu zer gertatuko zatekeen beste modura arituz gero edo –zergatik ez?– Urkijok bere kapitala beste *hobby*tan xahutu izan balitu. Zorionez, ez zen horrela jazo eta orain disfruta dezakegu haren ekarpen baliotsuarekin.

Urkijok bere aldizkariaren bitartez leiho bat ireki zion literaturari eta, ausartzen naiz esatera asmatu egin zuela formularekin. Irakurleak zeintzuk (litezkeen) ziren, garbi izan balu bezala, bere eta lankideen ekarpenak tentu handiz zaintzen zituen. Badakit ahalegin guztiek ez zutela arrakasta bera izango. Ziur nago, esaterako, Daranatzen frantsesezko “Henry IV et Axular” artikulua hedadura internazional handiagoa izango zuen Agirrerren *Garoa*-k baino. Baina bai bata bai bestea, garaian, *RIEV*-en premian zeuden, eta Urkijok eskua luzatu zien.

2. BIGARREN ALDIA

Berrogeita zazpi urteko hutsunea da Urkijoren aldiko lehen aletik, 1983an Eusko Ikaskuntzak beste Julio bati enkargua ematen dion arte. Eta, noski, baldintzak ez ziren berdinak. Eusko Ikaskuntza bera, diktadurak inpo-

saturiko hibernaziotik berpiztua, norabidea aurkitu nahian ari zen, espektro sozial, kultural eta zientifikoa arras desberdina baitzen gerra aurrekoarekin alderatuta.

Gregorio Monrealen “Una historia de la RIEV (1907-2003)” zabal eta jorian aurki ditzake interesatuak, 1978-1983 bitartean Eusko Ikaskuntzaren baitan *RIEV*-en inguruan izandako gora beheren aipamenak. Ez zen erraza gertatu abian birjartzea ia mende erdi bat lehenago indartsu zebilen zientzia eta kultura ibilgailu hura. Hala ere, nahiak eta borondateak zailtasunak oro gainditu zituzten eta aurrera jo zen. Aldizkariaren lerro nagusiak diseinatu ziren eta Julio Caro Baroja izendatu zen zuzendari, eta ziklo berriari ekin zioten 1983an. Eta ondoko lerroetan aipamen batzuk egingo ditut, Julio Caro Baroja eta Gregorio Monrealen arteko zuzendaritza aldiari dagokionez, bien artean Juan Garmendia Larrañagak bi urtez zuzendaritza eraman zuela ahaztu gabe.

Literaturari dagokionez, aro berriak salto kualitatibo handia eman zuen. Lan mamitsu eta sendoak argitaratzeari lotu zitzaizkion. Joan Mari Torrealdayk “Euskal liburuaren bide luzea” prestatu zuen, eta gerra osteko liburugintzaren balantzea egin zuen 1983ko urtarrila-ekaina lehen alean. Urte bereko uztaila-abenduaren alean, Manuel Lekuonak bertsolariaren gaiari heldu zion, “Bertsolarien pentsamentu-ritmoa” lanarekin. Bi ekarpenak euskaraz daude, Julio Caro Barojaren eskabideari jarraiki. “*Tengo entendido que este País es bilingüe*” esan zion zuzendari ordearen lanak egiten zituen Juan Garmendia Larrañagari, hizkuntzen arteko orekari buruz ari ziren egun batean. Alde horretatik, Monrealek bere ikerketa lanean gogoratzen duen moduan, Caro Barojak euskara, gaztelania, frantsesa eta alemanaren alde jokatu zuen, gerra aurreko eskema berdinari jarraikiz.

Hurrengo urtea, 1984ko urtarrila-ekaina alean, Luis Mari Muxikaren “Kanpoko lirikaren eragin zehatzak 12 euskal textutan”. Deigarria da, oso, lan honekin hasten direla azalerazten *RIEV*-en, ordurako euskal literaturaren tropelean nabarmenak ziren tentsioak. Literaturaren (edozein) osasun onaren seinale izan zitekeena, gure txokotxo partikularrean beste motako zioak ziren gehien gailentzen zirenak, askoren lan postuak jokatzen ari baitziren une haietan. “Artikulu hau eginda gero, gure eskuetara Joseba Lakarrak eta beste bi adiskideek idatziriko *Euskal Baladak* izeneko obra iritsi da. Lan horretan gauza positiboak aparte, akats nagusi bezala, halako eskematismo elemental bat nabari dugu. Gauzak ez dira sakontzen... Obran zehar testu zehatzen azterketa literario hurbil bat falta da (eta hortik erasotzen zaigu). Beraz, ‘gaztetxoen’ ausardiaz autoreek gure *Historia de la literatura euskérica* bi lekutan erasotzen dute ohizko jarrera eragabeen”. Eta Muxikak jarraitzen du jipoia banatzen, ikerketa lanaren tesiari heldu aurretik.

Antzerkiari buruzko lehen ekarpen zuzena ere 1984koa da, XXIX-2 zenbakian, hain zuzen. Bertan, bi lan aurkituko ditugu, lehena Antonio Labayenena “Euskal teatrogintza” tituluarekin. Bigarrena, Lino Akesolorena “Pedro Ignacio de Barrutia”-ri buruzkoa. Badirudi, idazle gazteagoen artean nabaritzen hasten zen giro tirabiratsua zaharragoenaren luzapen hutsa besterik ez zela, aitatu bi artikulu horiek irakurrita. Tolosarrak 1982an “Acto para la noche

buena”-ri buruzko liburu bat goraiatzan du bere testuan, hain zuzen Juan Mari Lekuona, Jon Kortazar, Joseba Lakarra, Enrike Knörr eta boston artean argitaratutakoa. Akcsolok, ordea, gai berdintsuaz Jose Maria San Sebastian “Latxaga”-k kaleratutako beste liburu bat laudatzen zuen, “gauden egunotan irakurri eta entzun dezakegu ganora obez egindako azter-lanik, eta sendatuko al da bein eta betiko zorigaiztoko orduan sartu izan zitzaigun gorriena”⁶. Ez dakit Labayenek izango ote zuen bere idazkia sortu aurretik “Latxaga”-ren liburuaren berri; Lino Akesolo, berriz, jakin gainean zegoen gureaz, nik neronek esanda 1979ko abenduan. Baina, itxura denez, filiek eta fobiek lehentasuna zuten objektibitatearen aurretik, zahar eta gazteen artean. *Nihil novum sub sole*.

Literaturak egundoko espazioa irabazi zuen *RIEV*-en 1985ean, urteko bi zenbakietan. Lino Akesoloren “Zahar hitz, zuhur hitz. Zuhur hitz bilduma berria, Iparraldeko bertularien lagunek eskaiña” ekarpena dugu lehena, Ipar Euskal Herrian bost bertularik plazaratutako liburuaren gain ari zela. Raúl Guerra Garrido zetorren gero “La literatura vasca en castellano 1939-1984” delakoarekin. José Javier Granjak segitzen zuen “Miguel de Unamuno y la SEV. Cartas de Angel de Apraiz a Miguel de Unamuno”-rekin. Jon Kortazarek “Jon Mirande eta ironia”-z ziharduen fin eta zorrotz. Manuel Lekuonak bertularitzara itzultzen zituen ostera bere ideiak “Gure bertsoen metrika” eta “Bertsularien pentsamentu ritmoa. II Zatia” ekarpenekin. Federiko Krutwigek amaitzen zuen urte hartako eskaintza, “Crítica de la crítica” bere lanarekin, gezi eta lantaz jositakoa:

En nuestra tierra parece que las corrientes espirituales universales causan pavor... y esto tanto a escritores como especialmente a críticos. Concebimos la literatura vasca como una reacción contra la literatura castellana... pero con mentalidad castellana. No sabemos pasar del Sturm und Drang⁷ al clasicismo. Y aunque el pueblo vasco es tanto, o más, marino que campesino, parece que el nacionalismo vasco se fundamenta en lo aldeano.

Ez zen 1986ko literatur uzta makalagoa izan. Urtarrila-ekaina zenbakian Jean Haritschelharek “L’antibertsolarisme dans *Basa Koplariari* (1838) de Jean Baptiste Camousarry (1815-1842) données sur l’étude des mentalités au XIX^e siècle” gaiari buruz idatzi zuen. Horren ostean Jorge Oteiza zetorren “Oteiza teomaquias” delakoarekin,

Y ahora sí, esta es la última vez que abandono árbol, abandono mundo, abandono Dios, abandono hombre; os dejo aquí mi corrupción, y esta vez para siempre; digo que por última vez vuelvo a salir de detrás del árbol, y aunque estudié en Lekaroz hasta el año 25, digo que esta vez no la hago ya educadamente, ahora que está la tierra caliente, ésta es mi metafísica, salgo detrás del árbol, con los tirantes caídos y abrochándome la bragueta.

6. Gabriel Arestik 1964an burutu argitalpenaz ari da Akesolo.

7. Alemaniako mugimendua, batez ere literaturan gauzatua, XVIII. mendean, eta balio autoktonoaren alde jokatu zuen, alemaniar ilustrazioaren aurka.

Oteiza “en estado puro”. Oteiza ezagututa, ez gaitu harritu behar hura ez zela azken agerraldia izan egiaztatzeak, urte hartan bertan, uztaila-abendukoa, eman baitzuen argitara “De Oteiza a Julio Caro Baroja. Teomaquia opus Septiembre 85” deritzana⁸. Urteko lehen sei hileari zegokion zenbakian ere Idoia Estornes Zubizarretak “Orixe y el premio Kirikiño. Primeros intentos organizativos de los escritores en lengua vasca” publikatu zuen.

Urte hartako bigarren zenbakia *R/IEV*-ek bere zuzendariari eskaini zion, Julio Caro Barojari euskaltzaleek prestatutako omenaldia zela eta. Edukiak gaika banatu ziren eta literaturari zegokion sailean agertutakoa modu honetan deskriba nezake: potpurri. Pertsonalitatearen bati eskaintzen zaion omeneko testurako, normalean botatzen diren idazki margo askotarikoen profilarikin bat datoz 1986ko uztaila-abendukoak: Lino Akesoloren “Pedro de Madariaga kaligrafoa”, Elias Amezagaren “D’Hiarce de Bidassouet”, Raúl Guerra Garridoren “Cacereño”, Jean Haritschelhare “La chanson populaire basque. Transmission orale, transmission écrite”, Jon Kortazaren “Neska ontziratua baladaren inguruan”, Luis Mari Mujikaren “Euskal lirika modernoaren urratsak”, Iñaki Zumalderen “XVIII mendeko testu euskeriko bat” eta goian aipaturiko Oteizaren bigarrena.

Bertsolaritzarekin topo egin genuen oster, oraingoan egile berri batekin, Xabier Amurizarekin, alegia, 1987ko urtarrila-ekaina, “Bertsolaritzaren gerra-ondotik gaurdainokoa” izenburuko lana eskaini zuena. “... desberdintasunak ez du berdintasunik ez dagoenik esan nahi. Alde horretatik, gaurko bertsolaritzak eta gerra aurrekoak –betikoak, beraz– berdinetik gehiago daukate desberdinetik baino. Eboluzioak ez du jarraipenik ukatzen, fosilmendua baizik” zioen bizkaitarrak, gaiari buruz zuzeneko aginteaz ari zitekeena, fraide eta sukaldari baikenuen batera. Ignacio Maria Barriolak, uztaila-abendukoa, “Peru Abarkaren irakurpen berria” zekarkigun eta Jose Ignacio Telletxea Idigorasek “Cartas a Miguel de Unamuno, de Telesforo Aranzadi, R.M. Azkue, Justo Garate y Angel de Apraiz” deritzana. Bost urte beranduago gaiarekin jarraituko zuen, orduan “Cartas a Unamuno de Emiliano y José Arriaga, Fermín Herrán y Carmelo Echegaray”-rekin.

Izen berriekin aberastu zen 1988an lankideen zerrenda, hurrengo urteetan joera berdina segituko zelarik. Horrela, Xabier Mendiguren Bereziartuk “Orixeren itzulpenaz” argitaratu zuen urteko lehen zenbakian Orixekoaren heriotzatik 25 urteko efemeridea zela eta. Manuel Maria, berriz, “Gabriel Aresti: arbre e pedra” galegoz idatzitako kronikan aritu zuen urteko bigarrean. Urtebete beranduagoko uztaila-abendukoa Jean Louis Davantek “Ipar aldeko poeta zenbait”-en berri ematen zuen, Bernard Etxeparerengandik hasita *Maiatz* aldizkarian kolaboratzen zutenenganainoko errepasoa egiten zuela. “Aportaciones de la obra legendaria de Juan Iturralde y Suit a la mitografía romántico-fuerista” idatzi zuen 1990eko uztaila-abenduan Jose Javier Granjak.

8. Oteizak dio sarrera gisa: “Este material para esta tercera Teomaquia, con las anotaciones que se me van ocurriendo, (sirva) para una deseable puesta en escena como Pastoral”.

Gaizka Barandiaranek irekitzen du 1991eko lehen zenbakiaren literatur edukia bere “Gaugaraiako logika edo logistika” ikerketa sakonarekin. Arrasatear josulagun adinduaren alboan, Ignacio Mujika Iraola dugu, uztaila-abendu-ko zenbakian, “Ipuingintzaz” hausnarketa interesgarriarekin, eta Manuel Maria dagerkigu berriro galegozko beste lan batekin: “A presencia do mar na poesia galega” Galiziako poeta handi horren ekarpenari, Xoxe Estevezek jarri zion sarrera mamitsua, Euskal Herria eta Galizaren arteko urte luzetako hartu eman sozio-kultural-politikoak kokatuz. Urte hartako azken aportazio literarioa Anjel Lertxundik egin zuen “Gogoz kontra, sendagile: tema literario ezaguna gurean” izenburupean.

Juan Cruz Mendizabal “Lo vasco en la narrativa de Raul Guerra Garrido”-z aritu zen 1992ko bigarren zenbakian. Joseba Intxaustik “Un siglo de historia socio-literaria vasca: a propósito de Orixe eta bere garaia (1860-1960)” idatzi zuen 1993ko lehen zenbakian. Laureano Roblesekin egin zuen bezala “Julián Zuazagoitia: escritor socialista del 27” gaiarekin. Urte hartako beste lankide bat Jose Angel Ascunce izan zen, “Valoración del momento actual de la poesía vasca en castellano. I” erreflexioarekin. Niri lepora lekidakeen erruarengatik ez bada, ez dut beste ekarpenik aurkitu; dena den, bere idazkiaren azken lerroak irakurrita, ez dirudi Ascuncekin bigarren ekarpenik emateko asmo zuenik. Beraz, titulua egon daiteke gaizki. Gorka Aulestiak “Marcel Jousse y Manuel Lekuona: dos pioneros de la literatura oral”-rekin eta Felipe Juaristik “La modernidad como búsqueda de la narrativa vasca” titulututakorekin osatu zuten 1994an, literatura arloari zegokiona.

Julio Caro Baroja 1995ean hil zen, abuztuaren 18an. Caro Barojari Juan Garmendia Larrañagaren laguntza ezinbestekoa izan zitzaion *RIEV*-en zuzendaritza hartu zuenetik eta aldiko azken zenbakiak, oso-osorik, tolosarraren ardurapean egon zirela esan daiteke, zuzendariaren gaixotasuna zela eta. Garmendia Larrañagak hartu zuen, beraz, aldizkariaren lema eta hiru urtez aritu zen zuzendari lanetan. Bere agindupean, literaturari dagokionez, Joseba Intxaustiren “Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571)”, Koldo Larrañagaren “Los retos de una efeméride conmemorativa o la deuda de la comunidad vasca con A. d’Oihenart”, Andres Ortizen “Mitología del héroe moderno” eta Jose Mari Satrustegiren “De la simbología del cuento maravilloso al mito” publikatu ziren 1995ean.

Garmendia Larrañagaren beste bi urteetan –1996 eta 1997ko lehen zenbakian– egile berriak ageri zaizkigu, ohiko lankideen artean. Haietatik Xabier Insausti dugu lehena, bere “Unas pinceladas sobre la obra y la figura de Unamuno” bilbotarraren alderdi poetikoa aztertuz; Xabier Mendiguren Elizegik “¿Atxaga solo? Panorama de la literatura vasca actual” eman zuen; eta Patri Urkizu birritan agertu zen, “W. von Humboldt eta garaiko euskal literatura” eta “Gogoeta arruntak XX. mende bukaerako euskal literaturan” lanekin. Beteranoetatik, Gorka Aulestiaren “Victor Hugo au Pays Basque” ekarpena eta Joseba Intxaustiren “W. von Humboldt: haren eta harekiko ‘gure’ argitalpenak” tituluko bibliografiaren antzerakoa izan ziren *RIEV*-en bigarren aldiko azken literatur ekarpenak.

Bibliografia arloan, berriz, gerra aurreko aldian bezala, lankideen nomina luzea da, eta ez nolana izenek osatua, gainera. Carlos Otegi ekin zion “Euskal nobela” lanarekin, 1984ko urtarrila-ekaina alean; euskal nobela euskal literaturen historian kokatzen duten lanak, hura ikuspegi orokorrez iker-tzen dutenak, nobelagileei buruzkoak eta euskal nobelak bereziki aztertzen dituzten erreferentziak azaltzen dizkigu. Joan Mari Torrealdaiaren “1983ko euskal liburugintza eta erdal liburuak Euskal Herriaz”, egileak Jakinerako burutu ikerketa bera bazen ere, 1984ko bigarren alean. Elias Amezagak “Contribución a la bibliografía de Miguel de Unamuno” lan zabala argitaratu zuen 1987ko uztaila-abendua zenbakian. Eta lau ekarpenetan, “Entresaca de un diccionario de seudónimos” utzi zuen 1991-1997 tartean. Arantza Arzamendik “Índice de autores de la *RIEV* (1938-1988)” eman zuen argitara 1989an, lan horri beste hauek ere jarraitu ziotenak: “Catálogo de publicaciones periódicas donostiaras” (1990), “Diario de San Sebastián: Análisis de la publicación y bibliografía selectiva de artículos” (1993). Jose Garmendia Arruabarrenaren “Documentos vascos del XVI en el archivo de Indias” (1990) eta “Documentos sobre el País Vasco en el Archivo de Protocolos de Sevilla” (1993), bi hauek historiarekin zerikusi gehiago duten arren. Aipagarria da ere, 1994 eta 1995 urteetan Jose Mari Etxebarriak idatzitako “Fichas bibliográficas de lengua y literatura vascas”.

Bibliografiari buruz gehi dezakedana zera da, eta nire iritzi hutsa da, aldi horretan aukera eder bat galdu zela. Aurreko izen ospetsuak irakurrita, *RIEV*-ek ez zuela bibliografiaren esparruan egoki jokatu iruditzen zait, askoz gehiago eska baitzekiokeen... batez ere kontuan badugu euskal kultura, berrogei urteko iluntasunaren ondoren, aineratzen ari zela. Erreferentzia internazionala bihurtzeko aukera galdu zela uste dut.

Errepaso azkarra eginda –eta ez ditut zerrendan sartu nahi izan literaturako liburuen gaineko berri labur ugariak– bibliografiari buruzko nire ustezko hutsa ezik, *RIEV*-en bigarren aldiko eskaintza literarioa aberatsa dela esango nuke. Gai anitzeko aldizkaria denez gero ezin zaiola askoz gehiago eskatu iruditzen zait. Uztartu egin zen ikuspegi gaztea eta ez hain gaztea. Generoak landu ziren, eta literatura desberdinak –euskarazkoa, espainierazkoa..., agian ez hainbeste frantsesezkoa– ukitu zituzten egileek. Hizkuntzaren aldetik, bibliografia kontuan izan gabe, aldi horretako berrogeita hamaika lanetatik hogeita lau (%47) euskaraz eman ziren, hogeita bi gazteleraz (%43), hiru frantsesez (%6) eta bi galegoz (%4) Bibliografiari dagokionez, nagusia da gaztele-ra (%86) eta gainerakoa euskaraz eginikoa.

3. HIRUGARREN ALDIA

Gregorio Monreal izendatu zuen Eusko Ikaskuntzak *RIEV*-eko zuzendari, 1997ko irailaren 26an, eta hark aldaketak ezarri zituen aldizkariaren eduki kudeaketan zein erredakzio kontseiluaren konposaketan. Edukiaren aldetik eman ziren, gehien bat, berrikuntzak, eta horietatik –lantxo honi dagozkion alderdietatik begirata– monografiak nabarmenduko nituzke.

Monrealen aldiko lehen zenbakian –1998ko urtarrila-uztaila– “América y los vascos” monografikoaren barruan badira zenbait gai, bete betean literaturaren arloan sartzen ez diren arren ikuspegi literarioa ahazten ez dutenak. Alde horretatik, partaideen iraultza txiki bat ere ematen da, izen berriak azaltzen baitzaizkigu. Jose Angel Ascunce, monografikoaren arduradunak “América y los vascos. Relaciones de una deuda cultural” eskaini zuen. Emilio Palacios Fernandez “Proyección de la ilustración vasca en América”, Luis de Lleraren “El pensamiento vasco y América: del modernismo a la guerra civil”, Gorka Aulestiaren “Lo vasco y los vascos en la Universidad americana”, José Luis Abellanen “Pensamiento vasco: dimensión americana” eta Iñaki Aduriz, Jose Angel Ascunce eta Jose Ramon Zabalaren “América y los vascos: introducción y estudio bibliográfico” lanek osatzen zuten zenbaki haren edukia.

Urtebete geroagoko, 1999, lehen zenbakian, Joseba Gabilondoren “Before Babel. Global Media, Ethnic Hybridity, and Enjoyment in Basque Culture” ikerketa lanak, ordurako pil-pilean zegoen globalizazioaren aurrean euskal kulturaren balizko erreakzioa proposatzen zigun.

That is why enjoyment, as a violent practice of subversion and creation of new spaces and positions, must be emphasized. Globalization has brought a diversification into the nationalist Basque Country, which permits to deploy enjoyment as a subversive practice of location.

amaitzen du esaten Gabilondok bere hausnarketa mamitsuan.

“Retrato de un escritor vasco de Nevada: Robert Laxalt (1923-2001)” idatzi zuen 2000ko bigarren zenbakian David Riok. Aldizkariaren argitarape-nerako dekalaje atzerapenak ahalbidetu zuen, 2001ko martxoaren 23an zendu zen idazle handiaren gaineko ikerketaren laburpen bat argitaratzea.

La RIEV, por su condición de foro internacional de los estudios vascos, constituye, sin lugar a dudas, un marco propicio para la presentación de este estudio sobre la obra de Robert Laxalt, un escritor en el que han convivido de forma armónica la pasión por sus orígenes vascos, el orgullo de su condición de norteamericano y ciudadano de Nevada, y una lógica aspiración de universalidad⁹.

Lankide berri bat ageri zaigu 2001eko 46.1 zenbakian, indar biziz, “Canonical and non canonical narrative in the Basque context” lanarekin. Maria Jose Olaziregi da, eta kritika zorrotza egiten dio eguneko literatura narratiboaren egoerari, nazioarteko proiektiorako euskal literaturaren sistema salatuz. “*I think the term ‘isolation’ defines accurately one of the major problems that the present Basque literary systems faces*”. Olaziregik bere ohiko argitasun ziztatzailea erabiliz emango dizkigu hurrengo urteetan beste ekarpen batzuk.

9. Dio Robert Laxaltek lan horretan: “... soy norteamericano, soy de Nevada y soy vasco. Nadie es sólo una única cosa, por lo cual no creo que exista ninguna contradicción en esa afirmación. No se trata de elementos excluyentes y estoy muy a gusto siendo las tres cosas a la vez”.

María Bueno Martínezek “Quince años de literatura vasca en castellano” jorratu zuen 2002ko lehen zenbakian. Hamazazpi urte lehenago –1985– Raúl Guerra Garridoren 1939-1984 bitartekoari buruzko ekarpenaren jarraipena zen. Sarrera gisa, “escritor vasco”-aren gaineko nire ustezko eztabaida antzuari eskaintzen dio egileak toki luzexka. Robert Laxaltek bere buruari egiten dion mugaketa gogoan edukita, horren kariatzko ezbai guztiak gaindituta egongo liratekeelakoan nago.

“Hervás y los apologistas vascoiberistas en 1803” tituluarekin argitaratu zuten Antonio Astorgano Abajo eta Antonio Astorgano Lozano egileek 2003ko lehen zenbakian. Eta Mari Jose Olaziregik “Internal and external displacements in Bernardo Atxaga’s *The lone woman*”. Asteasuarraren *Zeru horiek* eleberriko protagonistaren desplazamendu esperientzia ikertzen du Olaziregik, modu magistralean, Atxagarena diaspora-testutzat har litekeela adieraziz. Euskaraz ariko da Maria Jose Olaziregi bere hurrengo lanean, “Ramon Saizarbitoria: obsesioaz haratago literatura” izenburuarekin, 2004ko 49.2 zenbakian. Donostiar eleberrigilearen *Rossettiren obsesioa* du aztergai Olaziregik ekarpen berri horretan, protagonistaren eta literatura, pintura eta psikoanaliaren arteko loturak azaltzen dituelarik.

Hurrengo urtearen lehen zenbakian –50.1– gai bitxi bat ukitu zuen Iker Gonzalez-Allende Illinoiseko irakasleak: “La novela rosa de ambientación vasca e ideología franquista durante la Guerra Civil española” Espainiar gizartearen gainera diktadura erortzear zela, 1936-39ko literatur ekoizpena norantz eta zein nolako sistema inguratzailerekin ari zen apuntatzen azaltzen du egileak, modu interesgarri. Sei hilabete beranduagoko 50.2a, eta “Albis-teak” sailekoak orain arte aipatu ez baditut ere, salbuespen bat egingo dut, *Fontes Linguae Vasconum*-en lehen ehun zenbakiak agurtzen baitzuen oso ekarpen sakonean Jerardo Elortza oñatiarrak.

Bibliografiaren gaineko kapituluan, Fernando Mikelarenak “Bases de datos bibliográficos para la investigación en temas vasco-navarros” eskaini zuen, 2002ko 47.1 zenbakian.

Eta horrela amaitzen da Gregorio Monrealen aldiko *RIEV*-en literatur edukien bilduma, zuzendaritzako lanei 2005eko erdialdean utzi baitzuen Etayokoak. Aurrekoen artean ez ditut sartu, beste aldietan bezala, liburuen gaineko aipamen laburrak, ezta berrikuntza gisa Monrealen garaian aldizkariak ematen zituen Euskal Herriko Unibertsitateetako tesien erreferentziak ere. Zortzi urtez *RIEV*-ek lan sendoak eskaini zituen literaturako arloan. Eta, ene iritziz, nazioarteko testuingurura bidalitako mezuek modu egokian adierazten zuten Euskal Herriko literaturaren egoera. Aprobetxa dezadan azpimarratzeko doktoretzako tesien gaineko ekimen horren garrantzia, izan ere oso formula baliotsua baita ikerketa orokorrean Euskal Herrian norantz apuntatzen ari den ikusteko. Ekarpina ez da txantxetako, Unibertsitate desberdinetako ikasleen emaitza osoa baita. Zerrenda emateaz gain, euskal kulturarekin zerikusi duten tesiei buruzko iruzkinak ere eskaintzen dira.

Azken bi urteotako *RIEV*-eko literaturaren agerpenak bere bidea jarraitu du. Eta zerrenda “La Academia Cervántica Española de Vitoria” Gorka Martí-

nez Fuentesen lanarekin, 2005ko 50.2 zenbakian, eta 2006ko 51.2ko Juan Agirre Sorondoren “El teatro independiente de Vasconia (1969-1984)” izenburukoarekin osatzen da. Tomo berdinean, Frank Schulze EHU-ko Aleman Filologiako irakaslea “Anpassung, Widerstand und Flucht im Baskenland und Mallorca” gaiaz aritu zen, hau da, egokitzapena, erresistentzia eta ihesa Euskal Herrian eta Mallorkan, gerran girotutako bi eleberri ikertuta.

Oraindik goiz da *RIEV* berriak nora joko duen antzemateko. Sekulako erronka du aurrean eta bere lehen mendeurrena bete duen aldizkaria denez gero ongi hausnartu behar du norabideari fermuki ekin baino lehen.

* * *

Nolabait laburtzearren hiru zuzendarien jarduera, ondoko iritziak emango nituzke.

Julio Urkijok –Deustun jaiotako euskal mezenas harrigarriak– oinarrizko adreilua ipini nahi izan zuen *RIEV*-en bitartez euskal literatura suspertzeko eta ezagutarazteko. Euskaldunek eurek ere beren literaturaz ezer gutxi zekiten une haietan –1907tik aurrerakoetan– denetik egin behar zen, bere helburua –ongi oroitu!– euskal kultura nazioarteko zirkuluetan ezagutaraztea zuen agerkari hartan. Urkijok bazekien xedea ez zela samurra. Ezagutza osoa jarri zuen lantegian, berezko indarrez zein une haietako euskal esparruko lankide aditu gehienek eskainitakoaz. Garaiko euskaltzaleen *who’s who*-ko izar guztiak igaro ziren *RIEV*-etik.

Euskarazko testu zaharrak, axolagabekeria eta ezgaitasunean gal ez zitezen, berreskuratzen, testu berriak konposatzeraino; bi mutur horien artean, lapikoan era guztietako osagaiak sartu zituen Urkijok, munduak –euskaldunak eurak ere mundukotzat hartuta, noski– ideia zehatzago bat izan zezan gure literaturaz. Lortu ote zuen ala ez, beste gauza bat da. Ahalegindu egin zen, beraz. Garbi dago, ordea, guretzat euskaldunontzat kanpai danbada izugarria izan zela *RIEV*, azalean utzi baitzituen gabeziak. Euskal Herriko literatura –hiru hizkuntzatan, gutxienez– goratu beharra zegoela aldarrikatu zuen Urkijok. Baina susperketa, benetakoa izango bazen, ezin zen modu arinean prestatu. Horrek euskal literaturaren amaiera atzeratzea adieraziko zukeen, baina inolaz ere osasun bideko sendoketa. Horregatik Urkijok oinarri sendoa eskaini nahi izan zien, oro har, euskal kulturaren ikerketei. Espainiar gerrak eragotzi egin zuen bere asmoa.

Julio Caro Barojaren aroak –1983-97¹⁰ tartekoa– panorama desberdina aurkitzen du euskal literaturaren mugaertzean. Tunel goibel luze batetik igaro ondoren euskal gizartea bizitzapeneko koordenada berrietara egokitzen ari zen, eta *RIEV*-ek bere burua azaldu zuen, berez beste protagonista batzuek toki zabala irabazia zeukaten arlora. Kulturaren burtsako parketean beste

10. Julio Caro Baroja 1995eko abuztuan hiltzean Juan Garmendia Larrañaga ordura arteko zuzendari ordeak hartu zuen *RIEV*-en zuzendaritza, bi urtez.

zenbait enpresaren akzioek goitik kotizatzen zuten. Hala ere, Eusko Ikaskuntzaren aldizkari internazionalak apustu egin zuen, bere akzioak salgai jarri zituen eta baita irabaziak lortu ere, kultura ekoizpenean irabazirik sortzeak duen adierazpen mugatuan, jakina. Lemari trebe eta aske baten zuzendaritzapean, zabaldu egin zuen lankideen nomina eta euskarazko artikulua biderkatu egin ziren, aldizkariak inoiz hartu duen kopururik altuenera iritsiz. Freskotasuna ere igar zekiokkeen aldizkariako orrialdeetan. Pil-pilean zegoen euskal literaturaren inguruko mugimendua eta bere islapena izan zuen *RIEV*-en, Julio Caro Barojaren begirada, dasagun, laxopear.

Hirugarren aldian, Gregorio Monrealen agindupekoa, literatur ekarpena laburra baina, esango nuke, sendoagoa izan zen. Aurreko aroetako irizpideak aldatu ziren, toki emanez hondo sakoneko gaiei, Monrealen gustuko zorroztasun irmoak lagun, eta, ene ustez, Caro Barojaren denboran erdietsi ez zen nazioartekotasunezko kutsu mailara heldu zen oster, Urkijoren egunetako zenbait goi ikerketa lan gogoraraziz. Aurreko zuzendari bezala, Monrealek ere bere zeinua utzi zuen aldizkariaren literatur ikerketa lerroan.

* * *

Urkijok lantegi ederrari eman zion hasiera berak sortutako *RIEV*-ekin eta eremu zabalak ireki zizkion euskal kulturari. Batez ere, europar eta amerikar zientzialari askorengana heldu da aldizkariaren bitartez, Euskal Herriaren gaineko irudia eramanez. Urkijoren estiloa eta geroko zuzendariena ez da bat izan, hori garbi dago. Baina helburu berari eutsi nahi izan diote. *RIEV*-ek, 1983tik ere, gure gizartearen baldintza sozio kultural politikoak desberdinak zirelarik, modu eraginkorrez helarazi nahi izan zuen bere mezua. Azken hogeita bost urteotan, Euskal Herrian egiten den literaturari buruz euren ekarpena aldizkariaren orrietatik eskaini duten adituen zerrenda ez da, alajaina, nolana hikoia. Merezi al du berriro galdetzeak, nazioartekotasunaren formularekin asmatu ote den?

RIEV-en historian zehar argitaratutako artikulua eta ekarpen desberdinen artean 2.245 izatera heltzen da. Horietatik 309 euskaraz daude, hau da %14 gutxi gora behera.

Kontuan edukitzekoa da azken urteotan hazi egin dela euskarazko artikulua. Urkijoren garairik hoberenetan %29 izan zen literaturako mailarik altuena, euskaraz izan zuten presentziari dagokionez. Bigarren aldian, berriz, %38 izatera pasatu da. Poztekoa da, noski, eta badira motiboak aurrerantzean portzentaia handiagoa izango dela pentsatzeko. Baina, agerkariaren planteamendua aldatu egin beharko delakoan nago, xedeetara hobeto lotzeko.

Nazioartekotasunaren gunera itzuliz, eta nire zalantzak oinarritzeko, diodan, Juan Cruz Mendizabalen 1992ko “Lo vasco en la narrativa de Raúl Guerra Garrido”-rekin, adibidez, gehiago egin dela euskal literatura “merkatu arrotzetan” ezagutarazteko, 1997an Patri Urkizuk argitaratutako “Gogoeta arruntak XX. mendeko bukaerako euskal literaturaz” lan sakonarekin baino. Arrazoa, noski, denen baitan dago. Eta, oker egon naitekeen arren, ondoko

iritzia adierazi nahi dut: logikoagotzat hartuko nukeen *RIEV*-en Raúl Guerra Garridori buruz euskaraz aritzea eta gaur eguneko euskal literaturari buruz ingelesez argitaratzea.

* * *

Orain bezala, lehen ere izan zen eztabaidagai euskararen presentzia *RIEV* aldizkarian. Behin eta berriz komentatu izan da Julio de Urkijo zenaren hasierako asmoetariko bat –agian indartsuena– nazioarteko mundu intelektuolari euskararen gaineko informazio eta dokumentazioa ematea izan zela. Europan garaiko linguistika inguruaren antzerako agerkari espezializaturen baten irudia zetorkion *RIEV*-en sortzaileari, berea diseinatzeko orduan. Urkijo linguista zen, afizios, eta ez da, beraz, bat ere harrigarria horren kutsuzko edukiaz *RIEV*-en orriak bete nahi izatea, batez ere europar zirkulu espezializatuetan, “hain bitxia” zen hizkuntzari buruzko informazio zuzena eduki zezaten.

Urkijo, bere lanari eite emateko, eta ikusi dugun legez, sasoiko goi mailako euskaltzaleen laguntzaz baliatu zen. Gregorio Monrealek bere “*RIEV*-en gaineko historia bat (1907-2003)” lan kritikoan dioen moduan, Urkijo ez zen esnob bat, nazioartekotasun berba hitzetik hortzera erabiltzen duten horietakoa. Urkijo –ez dezagun ahantz, hasteko, *RIEV* Parisen jaio zela– zinez sinesten zuen euskal kulturaren internazionalizazioaren beharraz, eta horren alde egin zuen gorputz eta gogoz. Baina nola lortu hori? Nola iritsi nazioarteko komunitate intelektualera? Erabili beharko zituen, jakina, bere kontaktuak eskala horretan, linguistika, literaturan, filologian, historian eta abar. Erabili, gainera, modu bikoitzean: aktiboan zein tarteko zubi bezala. Eska ziezaiekeen lankidetzatza *RIEV*-en idazteko eta baita agerkaria zirkulu espezializatuetan ezagutarazteko

Baina garbi zuen euskara ez zela ibilgailurik egokiena zirkulu haietara heltzeko. Eta bazuen beste egiaztapen bat ere: aurrera egingo bazuen bere asmoarekin, Euskal Herriko intelektualekin osatu behar zuen oinarrizko plataforma, horiek eskainiko zioten babes hurbiletik. Baina Don Manuel Lekuonak gogorarazten zuen bezala¹¹, Urkijok arazo bat ikusten zuen –inori lepora ezin zekiokena, bestalde– eta hori gure hizkuntzaren txikitasuna zen: “erritxikiazia” esaten dio Don Manuelek.

Euskeraren auzia, gure auzi romantiku, oso romantiku, bañan ez ain eragille biur zitekeela, alegia (...) Eusko Ikaskuntzari, eusko estudioai ‘internacional’ egitea konbeni zitzaien; ori zan D. Julioaren begi argi, zorrotzak ikusten zuana; internacional egitea...

Urkijoren garaikidea eta haren moduan euskalgintzan argi bereziz nabarmendu zena Resurrección María de Azkue da. Hizkuntzaren aldetik lekeitiarrak burututako lanari gehitu behar zaio herri kulturaren osatutakoa. Baina, ene

11. ASJU.

ustez, bi ikuspegi desberdinetatik garatzen dute lana Azkuek eta Urkijok. Honek, euskararen inguruan zituen mugez jabetuta, nonbait, oso begirune handia zion adituari, nahiz eta Fausto Arozenak dioskunez “Don Julio *RIEV*-en zuzendaria, administratzailea, frogen zuzentzailea eta baita kontzeptuena ere”. Azkuerengan, berriz, bi izpiritu paralelo doaz, zeinek noiz irabaziko galdegai izan ohi zelarik: alde batetik, testigantza biziaren alde egiten zuen eta bestetik, hari, Azkuek bere iritzi teoriko eta zuzentzaileak ezartzen zizkion. Horrela bakarrik ulertzen da, Azkuek bere aitaren poemak publikatzea... berak suposatzen zituen hutsez garbituta, Pedro Ignacio de Barrutiaren *Acto para la Noche Buena*-rekin egin zuen moduan, *Euskalzale* astekarian 1897an argitaratua, “*corregida de los muchos barbarismos*”, Juan Carlos Guerrari adierazi zion moduan.

Julio de Urkijok, alde horretatik, askeago jokatu zuen, ziur aski, euskarekin zituen mugak direla eta. Barne-barneratua zeukan ezgaitasun hori eta konfiantzazko lagun eta adituengan jartzen zuen azken hitza. Pierre Lhanderen 1919ko “*Bulletin de littérature basque*”-ri eginiko oharra da ondokoa:

En confiant à notre collaborateur le R.P Lhande le rôle de chroniqueur de littérature basque (...) nous lui avons laissé pleine liberté d'exprimer son jugement. (...) Nous ne faisons pas ici œuvre politique mais seulement œuvre scientifique et littéraire. (Note de la Direction).

Hurrengo zenbakian, Pio Barojaren obra bati buruzko Lhanderen kritikari Pio Barojak berak erantzun zion, desafioa luzatuz, hura gai izango ote zen donostiarrari leporatzen zion plagioa frogatzeko

Baina ez dakit desbideratzen ari ez ote naizen nire gaitik, izan ere *RIEV*-eko euskararen presentziaz ari nintzen, eta horretara itzuli nahi nuke. Bestalde, nire saiakera txiki honek literaturari mugatu behar zituen bere lerroak eta hizkuntzaren erabilpenaz luzatzen ari naiz. Barkatu atrebentzia, dena den, literaturari ere aplika baitakioke esan nahi dudana, zientzia eta kulturaren beste edozein arlori egin dakioken moduan.

Gorago Don Manuel Lekuonak zioen moduan euskararen proiektzioa positiboa gerta zitekeen arren –eta izan zen, jakina– zeharo “erritxikiauiztua” zegoen, berak darabilen hitza erabiliz. Baina egia da, eta hau ere ez da ahaztu behar, *RIEV*-en euren lanak publikatu zituzten zenbait literatoren iritziek garbi adierazten diguten legez, euskarak testimonialki bederen espazio berriak irabazten zituela nazioarteko arloan. Horratx, adibidez, lokin Zaitegik itzulpengintzan Julio Urkijori 1933an bidalitako lantxoak: “*Kizkiña*” (zitologiaren gaineko saiakeratxoa) Euskara gai zen zientzia adierazteko! Zaitegik Unibertsitatea buruan sortzen zuen. Gaizka Barandiaranek egiten zuen moduan, “*euzkera, ba, gerkera bezaiñ zaarra, gerkera bezaiñ agurgarria*” eta “*Gaurgaraiko logika edo logistika*” 1991ean publikatzen du *RIEV*-en, herri txikiaren konplexua hautsi nahian ere, nonbait. lokin eta Gaizkaren kasuak aipatu ditut, Julio Urkijoren *RIEV*-eko lehen garaia ezagutu zutenen arteko bi euskaltzaleen kasuak gogoratzearen. Horiek garbi zuten euskara internazionalizatuz gero errespetua irabaz genezakeela, herri gisa. Beste askok ere

modu berean pentsatzen zuten. Nik, oraindik ere, nire zalantzak ditut. Ezen, gauza bat da bere burua internazionalizat daukan agerkari batean euskaraz argitaratzea... eta beste bat... horren emaitza praktikoa. Ziur nago, espazio irabazi bai... baina euskaldunon artekoa, soilik.

Dakigun bezala, Sariei prestigioa sarituek eurek eskaintzen diete. Huts egiten bada horiek aukeraketan Saria maldan beheerako prozesu arriskutsuan jarriko da. *RIEV*-en euskaraz argitaratzeak euskarari prestigio internazionala ematen ote dionaz nire zalantzak ditut; egileari, aldiz, prestigio gutxi, esango nuke. Eta hori diot *RIEV*-eko orrien bidez euskara hutsez agertuz gero, euskaldunon mugez gaindi espaziorik irabaziko ez dugulako; kanpo erakusleihotako bitxikeria ulertezin bezala geratuko zaigu, ikerketa lanean bere zientzia ahalmena jarri duen sortzaileari jaramonik egingo ez zaiolarik. Ez dakidana da, ordea, eta baieztapena dagit zentzu eta sentimendu guztiekin, *RIEV* bera prestigiatzen ote den nazioarteko mailara euskarazko edukiak zabaltzean. Izan ere, noraino iristen da goiko lerroaldean aipatutako bi lanen oihartzunarekin edota, beste adibide solte bat jartzearen, Antonio Labayen jaunak 1984an idatzitako “Euskal teatrogintza”-rekin? Ez al zen helburua askoz hobeto lortuko “Basque Theatre” izenburuarekin publikatu izan balitz? Seguru nago, *RIEV*-en Labayen jaunari irakurri zioten gehienek –denek, ez esatearren– bazekiten tolosarraren diskurtsoa.

Ezagutzen nautenek badakite nora jo nahi dudan, urteak daramatzat eta lelo berdinarekin. Euskararen langileon patuaz ari naiz, hain zuzen, hizkuntza handiko beste edozein sortzailek egiten duen adina esfortzu burutu ondoren “erritxiki-auzia”-rekin topo egiten dugula guk, euskaraz dibulgatzeagatik. Sortzeko ahalmen berdinarekin kokatzen gara abiapuntuan baina emaitza guztiz desberdina dugu helmugan. Euskal gizarteak ez gaitu euskaldunok behar bezala babesten, gure gizarte komunitateko erdaldunekin alderatuta. Hizkuntza txikian –hiztun gutxiko komunitatekoa, baina funtsean euskaldun egiten gaituen espezfizitate bakarrean– ari garenok diskriminatuta gaude. Non eta Euskal Herrian!

Eguneko *RIEV*-ean “herritxiki-auzia”ri irtenbide egokia eman behar zaio. Eta eman dakioke. Irudimena jarri behar da dantzan... eta dirua, noski. Nik espero dut, *RIEV*-eko zuzendari berriak praktikan jarriko dituela, teorian hain asumituta ditugun aukerak. Niri, kalitatearengatik merezi duela Erredakzio Batzordekideek uste badute, gustatuko litzaidake, lantxo hau burutzeak suposatuta didan esfortzuak bere saria edukitzea, eta euskaraz sortu dudalako, balizko irakurleriaren tamaina antzerakoa lortzea, lana espainieraz egin dutenekin alderatuta. Bestela, diskriminatuta sentituko nintzateke. Aurreko zuzendariak izan ez dituzten abantailekin joka daiteke egun. *RIEV* berria inoizkorik internazionalena izango delakoan naukazue.